MILAKA UME MUTURREKO POBREZIA ETA
GOSETIK ALDENTZEKO BORROKATZEN ARI DIRA

BATU ZAITEZ ALDAKETARAKO



GH kanpaina 2018-2019

HEZKUNTZA EZ-FORMALA



HEZKUNTZA EZ-FORMALA — NERABEAK

Sarrera eta justifikazioa

Azken urte hauetan aldaketa sustatzeko eta ahalbidetzeko abiapuntu gisa gure eguneroko kontsumoaren ardura lantzera zuzendutako kanpainak landu ondoren, ziklo berri bati ekingo diogu kanpaina honekin. Nazio Batuek onartutako Garapen Iraunkorrerako Helburuak, lankidetzari eta eragile guztien inplikazioari lehentasuna ematen dietenak, herritartasun globala sustatzeko abiapuntu dira. Ikuspegi hori prozesu honen bidez aurkezten da: informazioa biltzea - gogoeta egitea - ekitea. Kasu honetan, jarduerek, funtsean, lehenengo bi helburuak aurkezten dizkigute: pobrezia desagerraraztea, eta goserik ez izatea.

Helburu nagusia

Munduan dagoen desorekari eta goseari aurre egiteko sentiberatzea eta motibatzea.

Helburu espezifikoak

- Munduan dauden desorekak ezagutzea, aberastasunaren banaketari eta elikagaiak eskuratzeko aukerari dagokienez.
- Aldaketarako neurri zehatzak sustatu beharrari buruz gogoeta egitea, NBEk proposatutakoetatik abiatuta.
- Konpromisoa hartzea errealitatea ezagutarazi beharraren aurrean, modu kolektiboan aldaketa sustatzeko.

Denboralizazioa

Saio bat (50 minutu gutxi gorabehera)





Beharrezko materiala

- Ordenagailua, Internetekin.
- Bolalumak eta papera.
- Arkatz markatzaileak.

Metodologia

Saioa hiru fasetan antolatuta aurkezten da, sustatu nahi diren prozesuko hiru alderdiak landu ahal izateko: informazioa, gogoeta eta ekintza. Kasu honetan, gazteak beren irakaskuntzaren protagonista izan daitezen, zera proposatu da: landu nahi den errealitatea ezagutu eta gero, sakondu nahi diren alderdiei buruzko ikerketa gidatu bat egitea beraiek, proposamenak beren inguruan hedatzeko lagungarri izango den jolas bat edo dinamika bat landuz.





1. JARDUERA: Oso bidaia elikagarria

AURREIKUSITAKO DENBORA: 20 minutu

Sei taldetan banatuko dira, eta ondoren agertzen diren irudiekin lan egitea proposatuko zaie. Irudi horietan, munduko hainbat lekutako 11 familiaren argazkiak ikus daitezke, aste horretan kontsumituko duten janaria aurrean dutela. Taldean lan egiteko eskatuko zaie; honako galdera hauek egingo zaizkie:

Zer argazkik erakarri du gehien zuen arreta, eta zergatik?

Desberdintasun handia dago zuei aztertzea egokitu zaizuen herrialdeen artean?

Zenbatekoa dela uste duzue familia bakoitzaren aurrekontua?

Galdera hori egitean, familiako aurrekontuei buruzko datu batzuk eman daitezke. Eta, denbora izanez gero, beraiek asmatzera anima ditzakegu, edota herrialde bakoitza bere aurrekontuarekin lotzera:

Alemania 500,07$
Estatu Batuak (Hego Carolina) 346$
Japonia 317,25$
Italia 260,11$
Kuwait 221,45$
Mexiko 189,09$
Egipto 68,53$
Mongolia 40,02$
Ekuador 31,55$
Bhutango Erresuma 5,03$
Txad 1,62$

Hungry Planet liburuko proiektua: *What the World Eats*, Peter Menzel fotokazetariarena eta Faith D'Aluisio idazlearena.





Herrialde hauetako zeinek daukate zure elikaduraren antzekoena? Zeinek desberdinena?

Aukeratu esleitu dizueten herrialde baten argazki bat, eta pentsatu irudizko titulu bat argazki horrentzat.

10 minutuz gidoi honi buruz taldean lanean jardun ondoren, 5 minutu hartuko dira, emandako erantzunak labur-labur azaltzeko. Elkarrizketa hasi ondoren, jardueraren dinamizatzaileak elikaduran dagoen desorekari buruzko gogoeta egitea proposatuko du. Ondorengo testu hau irakur dezake, esaterako:

"2008ko ekainean, dozenaka herrialdetan milioika pertsona kalean janaria eskatzen zebiltzala eta munduan elikadura-urritasuna jasaten zutenen kopurua historian lehen aldiz mila milioiko zifra publizitariora iritsi zenean, FAOren (Elikadura eta Nekazaritzako Nazio Batuen Erakundea) goi-bilera bateko partaideek 30.000 milioi dolar eskatu zituzten berriro urteko, sei urteko epe baterako -180.000 milioi guztira-, munduan gosearen arazo larrienari konponbidea emateko. Une horretan, norbaitek gogoratu zuen argaltzeko tratamenduen merkatuak Estatu Batuetan urtero 33.000 milioi inguru mugitzen zituela.

Martín Caparrós, El Hambre. Anagrama ed.

Testuak sorrarazten dituen hausnarketak abiapuntu hartuta, munduko zenbait lekutan dagoen elikagai faltarekin lotuta gogoeta egitera animatuko dira ikasleak: elikagai horiek ekoizteko lana, janariak xahutzea, elikadura okerra (ez da soilik elikagai-eskasia, baita egokiak ez diren elikagaiak jatea ere).





1. irudia, Mexiko

2. irudia, Estatu Batuak





3. irudia, Mongolia



4. irudia, Txad



5. irudia, Kuwait



6. irudia, Egipto



7. irudia, Ekuador

8. irudia, Italia





9. irudia, Buthan



10. irudia, Japonia



11. irudia, Alemania

2. JARDUERA: Mundua 2030. urtean

AURREIKUSITAKO DENBORA: 20 minutu

Ikusi berri dugu gaur egun zer-nolakoa den munduaren egoera. Orain, 2030. urtean gaudela imajinatuko dugu. Nola bizitzea gustatuko litzaiguke? Talde bakoitzari eskatuko zaio paperean idazteko hemendik 12 urtera bizitza nola imajinatzen duten (ez bakarrik izango duten lanbidea; gaur egun ez dauden eta etorkizun hurbilean izan daitezkeen aurkikuntzak edo bizimoduak imajinatzeko ere eskatuko zaie).
Idaztea bukatzen dutenean, Garapenen Iraunkorrerako Helburuei sarrera egin geniezaieke, horiek baitira 2030ean gustatuko litzaieken mundua lortzeko Nazio Batuek ezarri dituzten helburuak. Aurkezpena honako bideo honen bidez egin daiteke:
https://www.youtube.com/watch?v=CmqGTibtqUw&t=18s
Bideoa ikusi ondoren, gaur eguneko inguruabarrak aldatzen ez badira munduan zer gerta daitekeen imajinatzen saiatuko gara. Horretarako, 2030ean mundua nolakoa izango den idatzi duten paperaren atzeko aldean benetan mundua aldatzen hasten ez bagara nolakoa izango den idazteko eskatuko diegu. Gero, taldeetan egindakoa bateratuko da.



3. JARDUERA: Asko dugu esateko

AURREIKUSITAKO DENBORA: 10 minutu

Bukaerako jarduera gisa, lehen eta bigarren GIHei buruz pixka bat sakonago ikertzeko eskatuko diegu, ordenagailua erabiliz. Ondoren, helburu horiek betetzen laguntzeko beren inguruan egin ditzaketen ekintza zehatz batzuk bilatu beharko dituzte. Talde osoaren artean ekintza bat adostutakoan, arkatz markatzaile handiarekin 2. jardueraren orrian idatziko dute. Amaitzeko, gelan itsatsiko dira paperak.

JARDUERAREN EBALUAZIOA

Jarduera ebaluatu nahi izanez gero, ikaslearen parte-hartzea eta inplikazioa aztertzea proposatzen dugu, hiru item hauen bidez:

ITEMAK	Bi	OO	O	N	EN
• Jarrera egokia erakutsi du, bai banaka bai taldean lan egitean?					
• Interesa agertu du jardueretan?					
• Inplikatu da jardueretan?					

